



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Futbol Federazioa

10.ZIRKULARRA

2019-20 Denboraldia

ERRENDIMENDUAN HASTEKO LEHIAKETA

INFANTIL TXIKI

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Errendimenduzko Ohorezko Infantil lehiaketa antolatzen du.

1) EKIPO PARTAIDEAK

I TALDEA: Antiguoko K.E.; Behobia C.D.; Hondarribia F.E; Real Unión Club; San Marcial C.D.; Lengokoak K.E. eta Mariño C.D.

II TALDEA: Oiartzun K.E.; Kostkas K.E.; Beti Ona C.D.; Touring K.E.; Pasaia K.E.; SANSE; Allerru K.J.K.E. eta Orereta Kafea F.C.

III TALDEA: Internacional C.D.; Astigarragako Mundarro FKE; Vasconia C.D.; Trintxerpe C.D.; Igeltegi C.F.; Santo Tomas Lizeoa K.E.; Martutene K.E. eta Orioko F.T.

IV TALDEA: Urnieta K.E.; Danena K.E.; Ostadar S.K.T.; Añorga K.K.E. Antigua Luberri K.E.; Hernani C.D. eta Tolosa C.F.

V TALDEA: Beasain S.D.; Euskalduna S.D.; Ordizia K.E.; Billabona K.E.; Lazkao K.E.; Idiazabal K.E. eta Aitzkorri Goierri F.T.

VI TALDEA: Anaitasuna C.D.; Zarautz K.E.; Zumaiako F.T.; Amaiak Bat K.E.; Elgoibar C.D.; Urki C.D. eta Burumendi F.G.

VII TALDEA: Eibar S.A.D.; Urola K.E.; Bergara K.E.; Arrasate C.D.; Aloña Mendi K.E.; Aretxabaleta K.E. UDA; Ilintxa S.D. eta Lagun Onak C.D.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Hiru fasetan, hau da:

LEHENENGO FASEA PARTE HARTZEA

Hasierakoa

Izen emate librea, baina talde bakarra klub bakoitzeko (52). 52 talde hauek 7 taldetan banatuko dira eta lehiaketa itzuli bakarrera jokatu da (7 jardunaldi)

Sailkatzekoa

Hasierako fasearen sailkapenak (7 jardunaldi) bederatzi talde osatuko ditu, kirol maila eta gertukotasun geografikoaren arteko oreka bilatuz.

Lehenengo fase hau amaitzerakoan eta kirol emaitzak kontutan izanda, lehiaketa bi maila ezberdinetan banatuko da: **Errendimendua eta Parte Hartzea.**

BIGARREN FASEA

1. ERRENDIMENDUA

Talde bakoitzeko 2 lehenek ($2 \times 9 = 18$), eta hirugarren sei hoberenak (guztira 24) sei ekipotako lau taldetan banatuko dira fase hau jokatu dute bi itzulietara (10 jardunaldi). Lortutako puntuak eta jokatuako partiden arteko ratio hoberena daukatenak izango dira hirugarren hoberenak. 24 talde hauek 2020-21 denboraldian Ohorezko Infantil Mailan jokatzeko eskubidea lortzen dute.

2. PARTE HARTZEA

Parte hartzeko lehenengo faseko 30 talde ez sailkatuek, 6 taldetako 5 multzotan banaturik bi itzulietara (10 jardunaldi) parte hartuko dute.

HIRUGARREN FASEA

1. ERRENDIMENDUA

Talde bakoitzeko lehenengoa sailkatuak ($1 \times 4 = 4$) partida bakarrera finalerdia jokatu du (2020-05-24). Finalerdi horiek, Euskadiko Futbol Federazioaren araudiaren 101. Artikuluan azaltzen denaren arabera onuradun ateratzen denaren zelai propioan jokatu dira. Irabazleek finala jokatu dute eta galtzaileek 3. eta 4. postua (2020/05/31) .

Finaleko bi taldeak eta 3. Sailkatua Gipuzkoako futbolaren ordezkari gisa joango dira Euskadiko Errendimenduzko Infantil Txiki txapelketara.

2. PARTE HARTZEA

Gainontzeko 30 taldeek txapeldunaren titulua eta 2020-21 denboraldiko Ohorezko Infantileko 32 taldeen zerrenda osatzeko falta diren 7 postuak jokatuko dituzte 6 taldetako 5 multzotan banaturik.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatua (1x5=5) eta bigarren postuan geratutako hiru talde onenak –jokatutako partida eta lortutako puntuen arteko ratio hobereena dutenak (guztira 8)-sailkatuko dira. Partida bakarrera, aurretiazko zozketa bidez osatutako Final-laurdenak (2020-05-24); Finalerdiak (2020-05-31) eta Finala (2020-06-07) jokatuko dituzte Parte Hartzeko ligako txapelduna erabakitzeko.

- Finalerdietarako sailkatuak..... 4 talde.
 - Final-laurdenetan galdu dutenen arteko bi irabazleak .. 2 talde.
 - Galtzaileen artean irabazlea..... 1 talde.
- 7 talde

7 talde hauek, Real Sociadekin batera Batzar Nagusiko akordioaren arabera, 2020-21 denboraldiko Ohorezko Infantilen 32 taldetako zerrenda osatzeko eskubidea lortuko dute.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

70 minutu eta 35 minutuko bi zati. 10 minutuko atsedenaldea egongo da eta **zazpi aldaketa**. Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalariek guztiak partidaren ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Zelai jokora sartzen den azken jokalariek ezingo du 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatia 15 minutua baino beranduago.

Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da.

4) DEIALDIA

Batzar Nagusian hartutako akordioa jarraituz, **taldea osatzen duten jokalarien %80a deialdian eta partidaren bertan egon beharko da**. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

5) JOKALARIAK

Taldea 2007 urtean jaiotako jokalariekin soilik osatuko da, bai Errendimendu Fasean eta bai Parte Hartzean.

5) LIZENTZIAK

Lizentziak federazioan bideratu beharko dituzte, azterketa medikua aurkeztuz eta jokalariak mutualitatean sartuz.

Talde bakoitzak, gehienez 20 lizentzia izango ditu.

6) DIZIPLINA ARAUA

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriaz, Instituzio Foralak eginkizunak eskuordetzean ematearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, araua jurisdikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsua aurkez daiteke.

Donostia, 2019ko iraila.
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAKZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe